

IKASTAROEN ARAUDIA 2011-2012

IZENA EMATEKO EPEA

Aurreko denboraldiko ikasleentzat plazak berritzeko epea

- o Maiatzaren 31tik Ekainaren 20ra arte

Abonatuak: ikastaroetan alta berriak

- o Uztailaren 4tik aurrera

Abonatu ez direnak: ikastaroetan alta berriak

- o Uztailaren 11tik aurrera

Igeriketa ikastaroetako alta berri bat ematen duten guztiek derrigorrez maila frogatu behar dira.

Helduentzako jardueretan parte hartzeko gutxienez 16 urte eduki behar dira.

2011-2012 DENBORALDIKO EGUTEGIA

- Ikastaroak 2011/10/3an hasiko dira eta 2012/06/17an bukatuko dira.
- Jaiegun ofizialak ez dira eskola egunak izango.
- Ondorengo egunen artean ohiko saioen ordez oporraldiko programazio berezi bat eskainiko da. Ikasle guztiek kostu gehigarriarik eta inolako mugarik gabe eskaintzen diren jarduerak guztietan parte hartzeko aukera izango dute.
 - o 2011ko abenduaren 24tik 2012ko urtarrilaren 8ra arte
 - o 2012ko apirilaren 2tik 15era arte

ORDAINKETAK

- Ikastaroen ordainketak bankutik helbideratuta eta hilean behin kobratuko dira.
- Alta berriak izena emateko momentuan esku diruz edo txartelaz ordaindu beharko dira. Gainontzeko kuotak bankutik helbideratuta kobratuko dira.
- Hilabeteko prezioa denboraldi osoa osatzen duten hilabeteetan emandako saioen hainbanaketa egitearen emaitza da. Nahiz eta hilabete bakoitzak saio kopuru desberdina eduki ikastaroaren hilabeteko kuotaren emaitza finkoa da.

PLAZAK BERRITZEA

- Ikastarogileek 2011-2012 denboraldi osoan zehar mantenduko dute ikastaroan duten plaza.
- Plaza berritzea automatikoki egingo da hilabete bakoitzaren bukaeran, espreski baja eman nahi dela adierazten ez den kasuetan.
- Ikastaroan baja eman nahi izanez gero, jarduera egiten den kiroldegiko harreraren adierazi beharko da aurreko hilabeteko 20a baino lehen. Horretarako, bidezko inprimakia bete eta harreraren aurkeztu beharko da.
- Arrazoi teknikoak direla eta, haurren igeriketa taldeen mailak hiru hilabeteetan behin berraztertuko dira. Horren ondoren, haurrek egin duten progresioaren arabera beste talde batean kokatzeko aukera izango da, hau da, baliteke hasierako ordutegietan aldaketak egitea.
- Denboraldia bukatzen duten ikasleek, izena emanda duten taldeetan, hurrengo denboraldirako plaza berritzeko aukera izango dute
- Plaza berritzeko eskubidea mantentzeko derrigorrezkoa da ikastaroa bukatzea.

BAJAK IKASTAROETAN

- Ikastaroan baja eman nahi duen pertsonak ikastaroa egiten duen kiroldegiko harreraren adierazi beharko du aurreko hilabeteko 20a baino lehen. Horretarako, bidezko inprimakia bete eta harreraren aurkeztu beharko du.
- Jarduera egiteko ezintasuna duela adierazten duen agiri medikua aurkezten duenari, ordaindutako kopurua itzuliko zaio.
- Ikastaroetako kuotak ez ordaintzearen ondorioa beste ikastaroetan izena emateko eskubidea galtzea izango da

TXANDAKA LAN EGITEN DUTEN PERTSONENTZAT ERRESERBATUTAKO PLAZAK

- Talde batzuetan jarduera txandaka egiteko aukera dago
- Ikastaroa txandaka egiteko aukera izateko baldintza hauek bete beharko dira:
 - o Txandaka aritu nahi izanez gero aukeratutako jarduerak txandaka aritzeko plazak izan behar ditu
 - o Ezin da txandaka aritzeko ezarritako dagoen plaza kopurua gainditu
 - o Beti jarduera bera egin behar da

IKASTAROAK BERTAN BEHERA UZTEA ETA ANTOLAKETA ALDAKETAK

- Errenteriako Udal Kirol Patronatuak jarduera bertan behera utzi ahal izango ditu ikastaroa egiteko gutxienezko pertsona kopuru batek izena ematen ez badu.
- Errenteriako Udal Kirol Patronatuak, antolaketa arrazoiak direla eta, ikastaroen ordutegia eta egunak aldatu ahal izango ditu, baita ikastaroak ematen dituzten langileak aldatu ere.

ACTIVA PLUS

- Bi jardueretan edo gehiagotan parte hartzen duten Udal Kirol Patronatuko bazkideei, bigarren jardueraren eta ondorengo jardueren zenbatekoan Activa Plus tasa kobratuko zaie
- Preziorik altuena duen jarduera osorik ordainduko da, eta gainerakoetan deskontua egingo da.

ALDAGELAN ERABILERA

- Debekatuta dago haur-kotxeak aldagelan sartzea, haurtxoentzako uretako jardueren kasuan izan ezik
- Derrigorrezkoa da ikastarogileentzat erreserbatutako aldagelak soilik erabiltzea
- Haur bakoitzarekin heldu bakar bat sartu ahal izango da aldagelara.
- Derrigorrezkoa da instalazioetako langileen jarraibideak kontuan hartzea.
- Dutxa guneetan sartzeko oinetako egokiak erabiltzea gomendatzen da (txankletak edo antzekoak).